



**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

**JESUSEK
JAINKOAREKIN
HITZ EGITEN
IRAKASTEN
DIGU**

8. GAIA

GURASOAK PARROKIAN

**Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**



**"Zeukaten ondazun
guztiak alkarrentzat
zuten, ..."**

Eg 2, 44

1. Helburua

- Jainko Aitarekiko hartu-emanerako bide den Jesusen otoitz esperientzian sakondu eta esperientzia horretan parte hartzeko deia entzun.

2. Helburu bereziak

- Jesusek Aita Jainkoarekin duen lagunarteko, konfiantzazko harremana, non Seme bezala agertzen zaigun eta parte hartzeko dei egiten digun, ezagutu.
- Jesusen otoitz esperientzian sakondu, nola egiten duen otoitz ikusi eta Berarengandik ikasi.
- Otoitza kristau bizitzako funtsezko esperientzia bezala eta "Gure Aita" otoitz-eredu bezala antzeman.



Ideia nagusiak

- Jesusek Jainkoa nor den agertzen digu bere bizitzaz eta hitzaz: Jainko Aita – Abbaren aurpegia agertzen digu.
- Jainko Aitarekin seme bezala duen hartu-emanen partaide izatera deitzen gaitu.
- Otoitza, Aitarekiko hartu-eman bezala, funtsezkoa da Jesusen esperientzian. Jesusek bere esperientziarekin, zelan egiten den erakutsiz irakasten digu otoitz egiten.
- 'Gure Aita' da kristau otoitz eredu.




Ezinbesteko lagungarriak

- I-IV eranskinen kopiak.

Garrantzitsua da saioaren jardunbidea ulertzeko eta, aldeaz aurretik, gauza guztiak prestatzeko astia hartzea.

◆.....
[1] 'Fedeaz sendotutako: sendotzarako katekesia' Katekesirako Galiziako Idazkaritzaren lagungarrien moldaketa, 1. zenb., PPC, 1996. 14. gaia, 86-91 or.

A. ERANSKINAK GURASOEN SAIOA PARROKIAN



Saiorako gida Laguntzailearentzat ...

Saioa lau unetan banatuko dugu:

- 1. unea: Agurra eta aurkezpena (5 minutu). 1.urratsa.
- 2. unea: Edukiaren garapena:
 - Otoitza gure bizitzan (10 minutu). 2. urratsa.
 - Jesus eta otoitza (20 minutu). 3. urratsa.
- 3. unea: Barneratzea eta adierazpena. Gure Aita (20 minutu). 4-5 urratsak.
- 4. unea: Familiaran bizitzeko (5 minutu). 6. urratsa.



Lehenengo unea. Agurra eta aurkezpena



1. urratsa. *Hasierako agurren ondoren, ongi etorria adierazi guztiei eta giro egokia sortu saioari hasiera emateko. Laguntzaileak landuko den gaia aurkeztu eta sarrera egingo dio: Jesusengan antzeman dugun otoitz-esperientzia.*

Jesusek denbora asko ematen zuen predikuan, pertsoneri harrera egin eta arreta eskainiz, gaixoak sendatuz... Baina jarduera horiek ez ziren eragozpen otoitzaldi luzeak egiteko, Jainko Aitarekin egoteko, Harekin hitz egiteko...

- Zer dela-eta da garrantzitsua otoitza Jesusentzat?
- Nola egiten du otoitz eta zer ikas dezakegu bere otoitzetik?



Bigarren unea. Edukiaren garapena

OTOITZA GURE BIZITZAN



2. urratsa. *Elkarrizketan jardungo dugu:*

- "Otoitza", "otoitz egin", e.a., entzuten dituzunean, zer pentsatzen duzu?
- Antzinako zerbait, zaharkituta dagoen zerbait, modan ez dagoen zerbait dela uste duzu? Ala, denbora eskaintzea merezi duen gauza positiboa dela?
- Ba ote dakigu otoitz egiten?
- Bat zatoz marrazkietan agertzen den marrazkiren batekin? Zer diotsue? (I. eranskina)
- Otoitz egitearen esperientzia duzula esango zenuke? Horrela bada, nola azalduko zenuke esperientzia hori?



3. urratsa. "Jesus eta otoitza". Jesusek balio handia ematen zion otoitzari; bere bizitzan nahiz predikuan, leku garrantzitsua zuen. Jesusek otoitz egiten zuen: bizitzako hainbat unetan agertzen da otoitzean. Ebanjelioan jasotzen dira Jesusek Aitari zuzendu zion hainbat otoitz. Horietan arreta jarriko dugu, adierazten duten esperientziaz jabetzeko.



II. ERANSKINA banatuko diegu eta bizpahiru lagunez osatutako taldeak egingo ditugu. Talde bakoitzari koadroan agertzen diren txataletako batean arreta jartzeko eskatuko diogu eta osa dezala, bertan agertzen diren sentimendu eta esperientziei buruzko galderari erantzunez.

Azkenik, erantzunak batera jarriko ditugu, koadroa betez. Azken galderaz baliatuz, ondorioak ateratzen saiatuko gara:

- Guzti honen argitan... Zer esango zenuke Jesusen otoitz-esperientziaz?
- Zergatik da garrantzitsua Jesusentzat otoitz egiteko astia hartzea?

Hirugarren unea. Barneratzea eta adierazpena

AITAGUREA



4. urratsa. Jesusentzat, otoitza oso garrantzitsua dela ikusten dute ikasleek, otoitzaren bidez, hartu-eman estua baitu Aitarekin. Ikasleek, Jesusengandik ikasi nahi dute otoitz egiten eta irakasteko eskatzen diote: "Jauna, irakatsiezaguzu otoitz egiten". Eta Jesusek erantzun zien:



"Otoitz egitean, esazue:
«Aita, agertu santu zeure izena,
etorrrarazi zeure erregetza;
emaguzu egunean eguneko ogia,
eta barkatu gure bekatuak,
guk ere zor diguten guztiei barkatzen
baitiegu,
eta ez utzi gu tentaldian erortzen»".

(Lk II, 1-4)

Jesusek otoitz egiten irakasten die, Aitari hitz egiten, "Gure Aita" otoitzarekin. Hauxe da kristauen otoitzik garrantzitsuena. Beharbada umetan ikasiko zenuen, baliteke bizitzan hainbat aldiz (edo askotan) errezatu izana... edo entzun duzu noizbait, senideren batek errezatu duelako edo ezkontza, hileta,... edo ospakizunen baten errezatu dutelako.

- Pentsatu edo sakondu duzu noizbait Aitagurea errezatzen dugunean esaten ditugun esaldien adieran?

Saia gaitzen. III. ERANSKINA banatuko diegu, elkarrekin irakurri eta aztertu ahal izateko.



5. urratsa. Otoitzean, garrantzitsuena ez da asko "jakitea", otoitz egitearen esperientzia "izatea" baizik. Horregatik, saioari amaiera emateko, beste batzuetan baino otoitzaldi "zainduago" eta bereziagoa egin dezakegu.

Ahal izanez gero, ona litzateke delako otoitzaldi hori beste lekuren batean egitea, hau da, taldea otoitzerako beren-beregi girotutako tokira (otoiztegi edo kapera, eleiza...) lekualdatzea. Horretarako aukerarik ez bada, laguntzaileak lekua girotu egingo du otoitzerako giroa sortzeko sinboloren batekin.

Otoitzak honako gidoia izan dezake:

- Laguntzaileak sarrera egin eta otoitz egiteko giro egokia prestatuko du. Kontuan izan behar dogu izan daitekela otoitz egitean esperientzia eta ohiturarik ez duen taldekiderik. Horregatik, ezinbestekoa da aldian-aldian jarraibide eta argibideak ematea.
- Isiltasuna egiteko, arnasa patxadaz hartzeko, begiak ixteko (deseroso sentitzen ez badira...) esango zaie taldekideei.
- ... eta barruko isiltasunetik, Jesusek bere otoitzean adierazten duenez, Aitarengan uste osoa jartzearen esperientzia sentitu...
 - Horrela sentitzen ote naiz?
 - Uzten ote diot Aita Jainkoari besarkatzen eta bere eskuz eusten?



Ondoren, esperientzia hori "hausnar" dezatela, "Solo en Dios descansa mi alma" abestia entzuten den bitartean.



**Bideoa ikusteko,
klik egin irudian
edo eskaneatu QR kodea**



- Jesusek Aitagurearen bidez irakatsi zigun otoitz egiten; hori dela-eta, hitz horiez baliatzen gara Jainkoarengana behin eta berriz zuzentzeko. Aitagurea, gainera, mundu osoko eta garai guztietako kristauekin lotzen gaituen otoitza da. Dena dela, Aitagurearen hitzak "errepikatzea" baino garrantzitsuagoa da hitz horiek geure egitea eta Jainkoarekin konfiantzazko elkarrizketan jardutea.
- Lagun bakoitzak bere Aitagurea "berridatz" dezala; bere hitzez adieraz dezala Aitagurearen eskari bakoitzarekin zer esan nahi dion Jainkoari. IV. ERANSKINA banatuko diegu eta isilunea egingo dugu (musika jar daiteke), bakoitzak bere otoitza idatz dezan, tarte hau banakako otoitzaldi bihurtuz.
- Otoitzaldiari amaiera emateko, banakako otoitzaren inguruko zerbait batera jarriko dugu. Aurretik, otoitzean bat egiteak elkarrekin lotzen gaituela azalduko die laguntzaileak. Laguntzaileak Aitagurearen eskariak banan-banan esango ditu eta taldekideei beren hitzez egin dituzten otoitzak irakurtzeko esango die.
- Laguntzaileak esker ona adieraziz emango dio amaiera otoitzaldiari.

Agurtu aurretik, adieraz dezatela hitz batez nola sentitu diren saioan.

Laugarren unea. Familian bizitzeko



6. urratsa. Etxean, senitartean, otoitz egin dezakegu. Baliagarri izan daiteke gidoi hau. Senide helduetako batek gidatuko du otoitzaldia:

- Elkarrekin, senitartean, lasai gauden asteko eguna eta eguneko unea eta leku egokia zehaztu, gustura sentitu eta otoitz egiteko.
- Etxeko zarata guztiak itzali eta musika lasaia jarri, lasaitzeko... arnasa patxadaz hartu...
- Musika ere itzali eta etxe osoa isilik dela, "isiltasuna entzuteko" ariketa egingo dugu: zein soinu du?, nola entzuten da?
- Geure arnasketan arreta jarri, nolakoa da: arina ala geldoa?, sentitzen dut nola sartzen eta ateratzen den airea? Begiak itxi eta arnasketa lasai eta luzeak egingo ditugu...
- Seguruenik, orain lasaiago, bareago sentituko naiz... Horrela, isilik, gure bihotzaren taupadak ere entzun ditzakegu... Ipini eskua paparrean, ikusi nola egiten dituen taupadak...
- Eta geure barrualdera begiratzuz gero, nola sentitzen garen, bihotza nola dugun ikusiko dugu: alai, triste, kezkatuta, haserre, lasai... Nola sentitzen naiz? Besteei kontatuko diegu.
- Jesusek hamaika gauza egiten zuen, jende askorekin egoten zen, arreta eskaintzen zion zerbait behar zuenari... baina hainbat unetan, Bera bakarrik, edo ikasleren batek lagunduta, bakartu eta isilean otoitz egiten zuen, bere Aita Jainkoarekin solasean jarduten zuen. Otoitzak indarra eta adorea ematen dizkio aurrera egiteko.
- Geuk ere, horrela, isilik, geure bihotzean senti dezakegu Aita Jainkoak etengabe maite eta zaindu egiten gaituela. Zeurekin dela konturatu, maite zaituela, eta hitz egin Berarekin, adiskidearekin hitz egiten duzun bezala. Konta iezaiozu nola sentitzen zaren, eguna nola joan den, hitz egin iezaiozu maite dituzun pertsonez, konta iezaiozu zerk kezkatzen zaituen, laguntza eskatu, esker ona adierazi gertatutako gauza on batengatik... Hitz egin Berarekin isilik, bihotzetik, nahi duzuna esan, Berak entzungo zaitu-eta. Tarte itxi bakarka otoitz egiteko eta, ondoren, sentipenak, Aita Jainkoari esan dioguna,... batera jarri.
- Jesusen adiskideek Berarentzat otoitz egitea oso garrantzitsua zela ikusi eta Aita Jainkoarekin hitz egiten irakasteko eskatu zioten. Eta Jesusek Aitagurea irakatsi zien. Jesusek irakatsi zigun otoitza da eta, horregatik, gaur egun ere esan egiten dugu. Aitagurea errezatuko dugu elkarrekin, eskarrietan arreta jarritz.
- Otoitzaldiari amaiera emateko, eskerrak emango dizkiogu Aita Jainkoari jakin badakigulako, nahiz eta hainbat aldiz ahaztu, Bera gurekin dela beti lagun eginez eta maitatuz.

I. eranskina

¿Sabemos orar?

Quizá a lo largo de nuestra vida oramos, pero muchas veces puede ser que nuestra oración no sea del todo correcta. He aquí algunas formas de orar:



II. eranskina

NOIZ ERREZATZEN DU?	NOLA ERREZATZEN DU?	ZEIN SENTIPEN ADIERAZTEN DU?
Ikasleak prediku egitetik itzultzen direnean	"Goresten zaitut, Aita, zerulurren Jauna, gauza hauek jakintsu eta ikasiei ezkutatu dizkiezulako eta jende xumeari agertu. Bai, Aita, goretsia zu, horixe izan baituzu gogoko" (Mateo 11, 25-26)	
Lazaro berpiztu aurretik	"Eskerrak zuri, Aita, entzun didazulako. Nik badakit beti entzuten didazuna; baina inguruan den jendearengatik diot, zuk bidali nauzula sinets dezaten" (Joan 11, 41-42)	
Azken Afarian	"Aita santu horrek, zaindu zeure ahalmenaz zuk eman dizkidazunok, bat izan daitezen gu geu bat garen bezala... Egizu guztiak bat izan daitezela. Aita, zu nirekin eta ni zurekin biok bat garen bezala, hauek ere bat izan daitezela gurekin... Aita, zuk eman dizkidazunak ni nagoen lekuan nirekin egotea nahi dut, nire aintza... ikus dezaten" (Joan 17, 11. 21. 24)	
Olibondoen baratzean	"Ene Aita, ahal bada, urrun ezazu niregandik edari samin hau. Hala ere, egin bedi zuk nahi bezala, ez nik nahi bezala... Ene Aita, edari samin hau derrigorrez edan behar badut, egin bedi zure nahia" (Mateo 26, 39-42)	
Gurutzean josten ari direla	"Aita, barka iezaiezu, ez baitakite zer ari diren" (Lukas 23, 33)	
Gurutzean zintzilik dela	"Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu?" (Mateo 27, 46)	
Heriotzaren orduan	"Aita, zure eskuetan jartzen dut bizia" (Lukas 23, 46)	

Guzti honen argitan... zer esango zenuke Jesusen otoitz-esperientziaz? Zergatik ote da hain garrantzitsu Beretzat otoitzean denbora ematea?

III. eranskina

JAUNA, IRAKATS IEZAGUGU OTOITZ EGITEN

- GURE** Ez diotsut "ene Aita", ez baitago bakarrik. Otoitz egiten dudanean, Jesus eta kristau guztiak nirekin daude.
- AITA** Zuregana jotzen dugunean, seme-alaba txikien uste osoarekin, maite gaituzula jakinda egin dezagula nahi duzu.
- SANTU IZAN BEDI ZURE IZENA** Jauna, Zeu zara santu bakarra. Kendu guregandik eta mundutik gaitz eta oker guztia. Horrela, benetan santu izango zara.
- ETOR BEDI ZURE ERREINUA** Aita, garaile izan dadila munduan Jesusek berarekin ekarri zituen maitasun, zuzentasun eta bakearen Erreinua. Horrela, krezio osoaren benetako Jaun izango zara
- EGIN BEDI ZURE NAHIA ZERUAN BEZALA LURREAN ERE** Jauna, konpromisoa har dezagula zure zoriontasun eta salbamenezko nahi eta egitasmoak gizon eta emakume guztientzat bete daitezen.
- EMAIGUZU, GAUR, GURE EGUNEROKO OGIA** Jauna ez dakigula inoiz ogia falta; jakin dezagula ondasunak banatzen inori ez dakion eguneroko ogia falta.
- BARKATU GURE ZORRAK GEUK ERE GURE ZORDUNEI BARKATZEN DIEGUNEZ GERO** Jauna, eskerrik asko barkatzen gaituzulako. Geuk ere barkatzen dugu. Borroka dezagula pertsona guztien arteko adiskidetzearen eta bakearen alde.
- EZ GAITZAZU UTZI TENTAZIOAN JAUSTEN** Jauna, gaindi ditzagula Zuregandik aldentzen gaituzten oztopoak. Bekatuak ez gaitzala bildu eta ez gaitzela bere morroi bihurtu.
- ATERA GAITZAZU GAITZETIK** Jauna, zure indarrak bultza gaitzala, mundu honetan bizi garen bitartean, gaitzaren boterearen gainetik garaile atera gaitzen.

IV. eranskina



GURE	
AITA	
SANTU IZAN BEDI ZURE IZENA	
ETOR BEDI ZURE ERREINUA	
EGIN BEDI ZURE NAHIA ZERUAN BEZALA LURREAN ERE	
EMAIGUZU, GAUR, GURE EGUNEROKO OGIA	
BARKATU GURE ZORRAK GEUK ERE GURE ZORDUNEI BARKATZEN DIEGUNEZ GERO	
EZ GAITZAZU UTZI TENTAZIOAN JAUSTEN	
ATERA GAITZAZU GAITZETIK	

